

ESPILLA

Dorretxe itxurako jauregi bat da, denborarekin baserri bihurtutakoa, nahiz eta oraindik bere jatorrizko funtzioa zein zen adierazten diguten hainbat ezaugarri kontserbatzen dituen.



KOKALEKUA:

Bere kokalekua estrategikoa izango zen, Bizkaitik herrira sartzen zen Errege Bidearen ondoan, eta hura kontrolatu ahal izateko behar besteko alturan.

FUNTZIOA:

Torretarekin beste artikulu batean aipatu dugun moduan, XVI. menderako dorretxe honen funtzioa ez zen defentsiboa izango, bizilekua izatekoa baizik, eta bere eraikuntza gehiago izango zen botere erakuste bat behar defentsibo baten betetzea baino. Horregatik, 1552an agertzen zaigunez lehen aldiz dokumentazioan, suposatzen da bere funtzioa etxebizitza izatekoa izango zela, baina bere ezaugarri defentsibo ugariak, eta zenbait ahozko iturrik kontrakoa adierazten digute: Iturri hauek dorretxea XVI. mendea baino askoz lehenagokoa izango zela adierazten digute, 1316an kokatzeraino, nahiz eta ez dagoen idatzizko dokumenturik hau egiaztatzeko. Beste froga bat bere antzinasuna frogatzen diguna izena da: Auzo guztiko etxeek, eta baita Ermitak ere “Sallabente” hitza izango dute izenean barne hartuta, auzoaren izena, XIX. mende hasieran sortua; Espillak ez ordea, honen aurretik sortua izango baita.

ERAIKUNTZAREN KANPOALDEKO ANALISIA:

Bi pisu eta ganbara moduko bat izango ditu, eta bi aldeko teilatua. Paretak harlangaitzezkoak izango dira, nahiz eta aurrealdeko leihoek harlanduzko dobelak izan. Fatxadako leihoak zabalak izango dira, bi leihorekin behealdean, hiru lehenengo pisan eta bi bigarrenean (bigarrenekoak izanik bakarrak dobelarik gabe). Sarrerako atea zabala izango da. Iparraldeko paretan bi gezi leiho kontserbatuko dira oraindik ere.

JABEAK:

Nahiz eta gerora baserri bihurtu, jatorriz aberatsen etxea izango zen, Espilla sendia boteretsua izango zelarik Ermuan XVI eta XVII. mendeetan zehar. Eraikin honez gain, beste hiru baserri izango zituzten, beren ekonomiaren egoera onaren isla.

1794ko herriaren erreketan, Konbentzio Gudaren testuinguruan, erre egingo zuten, une horretan bere jabea Martin Lorenzo de Aramburu izango zelarik. Harrizkoa zenez, ez zuen kalte handiegirik jasango, eta zenbait konponketa txikiren ondoren, zutik jarraituko zuen.

BIBLIOGRAFIA:

- Aranberri, F. (2001) *"Ermua- Eitzaga Leku-Izenak. Geure izanaren barrena"*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Kerexeta, J. (1992) *"Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII"* Bilbao: Instituto Labayru.
- Pinedo, J.A (1996) *"Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak"*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.

KOLABORATZAILEAK:

- Ricardo Carro
- Hector Izaguirre
- Myriam Sierra

EGILEA:

Maddalen Zabaleta